

Aurkezpena 2019/07/02

“Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Euskadiko Udalen Elkartearen (EUDEL) arteko lankidetzaren hitzarmena, familia-etxebizitzatik botatzearen ondoriozko ahulezia-egoerak hautematea eta izaera sozialeko neurriak hartzea ahalbidetzeko.”

Xehetasunez azalduko du Etxebizitzako Sailak hitzarmenaren edukia; hala ere, baliagarria izan daiteke oinarrizko gizarte-zerbitzuko profesionalen lanarekin lotutako zenbait gogoeta egitea.

Lehenengo “ahulezia” terminoaren erabilera da. Baliteke guztiok partekatzea ideia hau, edozein dela gure lan-eremua: etxegabetze-egoera batera heltzen diren pertsonak ahulezia egoeran egongo dira.

Terminologia

- o Kalteberatasuna
- o Gizarte-bazterketa



Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak

Aldizkako erantzuna epaitegira eta pertsonen eskaintako arreta

Ñabardura desberdinak hartzen ditu termino horrek testuinguruaren arabera eta, hala badagokio, kontsultatzen dugun araudiaren arabera; baina, ziurrena da antzeko egoerak eta arazoak esan nahi izatea.

Halaber, komeni da oinarrizko gizarte-zerbitzuek pertsonen eskaintzen dieten arreta bereiztea epaitegien errekerimenduen uneko erantzunetik. Auzi hori garrantzitsua da, bereziki, oinarrizko gizarte-zerbitzuentzat pertsona ezezagunak aipatzen badituzte jasotako komunikazioetan.

Ondoriozta badezakegu ere, etxegabetze bat gertatzen denean, pertsona haiek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak artatu dituela inoiz (batez ere, gizarte-larrialdietarako laguntzak kudeatzen), benetan, epaitegien errekerimendua jasotzen duten pertsona ezezagunak dira oinarrizko gizarte-zerbitzuentzat. Egoera horrek ere gogoeta egokia egitea beharko du¹, hitzarmena bete ahala planteatu ahalko dena. Bitartean, beharrezkoa da ukitutako pertsonen eta epaitegiei erantzutea ahalik eta azkarren.

¹ Hori azaltzen duten eredu batzuk eman dizkigute. Haiek aipatzen zituzten: dibortzio arazoak eta, gaizki funtzionatu zuen jardura ekonomikoren bat hasi zuten pertsonak, zeinek ez baitzioten azaldu ezta bikotekideari ere, beranduegi izan arte.

Ahulezia terminoa

Hipoteka-zordunen babesa, zorra berregituratzea eta alokairu soziala indartzeko neurriei buruzko **1/2013 Legean** ezarritako **egoerak** aipatzen ditu hitzarmenak:

Eskematikoki ikus ditzakegu irudian jasotako egoera-motak (dokumentuaren bukaeran, testu osoa dago).

Egiazta dezakegunez, ukitutako pertsonak ezagutzen ez baditugu ere, errolda egiaztatzea da nahikoa² pertsona haiek zenbat egoeratan kokatu ahal izateko —adibidez, familia ugariak eta adingabeek arduratzen direnak aipatzen dituztenak—; beste batzuetan, berriz, nahikoa errazak izango lirateke egin beharreko egiaztapenak.

Genero-indarkeriaren biktimei lotutako egoera izan zitekeen zailena, kasuan kasuan (azken aurrekoa irudian).

Termino bera aipatzen du aldatu berri den Prozedura Zibilarren Legeak eta ez du ordeko definiziorik eskaintzen; edukitzekotan, nolabaiteko ñabardura gehitzen du ahuleziaren izaera sozialari edo ekonomikoari buruz.

Irudian, Lege horren 441. artikuluan gehitutako edukia laburpena dugu. Edonola ere, egoera berdinak aipatzen ditugula da garrantzitsuena.

Kalteberatasuna...

EGOERAK, Hipoteka-zordunen babesa, zorraren berregituratzea eta alokairu soziala indartzeko neurriei buruzko maiatzaren 14ko **1/2013 Legearen arabera...**

- o Familia ugaria
- o Guraso bakarreko familia ardurapeko seme-alabekin
- o Familia adingabeekin
- o Desgaitasun maila \geq % 33
- o Langabezia
- o Desgaitasuna, mendekotasuna, gaixotasuna, lana oztopatzen duena.
- o Genero-indarkeriaren biktimak
- o Zordun > 60 urte



Prozedura Zibilarren Legearen aldaketa
441.5 art.

Ez du aldatu "Kalteberatasun" kontzeptua,

Kalteberatasun-egoeretan, **EPATEGIAk:**

- Herritarrari jakinarazten dio aukera duela Gizarte Zerbitzuetara joateko eta bere datuak lagatzeko.
- Gizarte Zerbitzuei jakinarazten die prozedura abian dagoela.

Gizarte Zerbitzuek kalteberatasuna baieztatzen badute...

Prozesua eten egiten da Gizarte Zerbitzuek egoerari dagozkion neurri egokiak bultzatu arte. Gehienezko epea hilabetea (3 hilabete auzi-jartzailea pertsona juridikoa bada).

(Dokumentuaren bukaeran, 441.5 artikuluan testu osoa dago)

² Ondorioztatu behar dugu epaitegien komunikazioak hobetuko direla. Eudelek egin berri duen bileran, zenbait profesionalak azaldu zuten zaila zela ukitutako pertsonak aurkitzea, ematen zieten informazio urriagatik. Are gehiago, helbidea bakarrik aipa zezaketen. Horrelakoan ere, epaitegien arteko desberdintasun garrantzitsuak daude.


Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarekin lotutako indarreko araudian, aldiz, 385/2013 Dekretuak araututako arriskuko³ eta gizarte-bazterkeriako egoeren testuinguruan kokatzen da ahulezia kontzeptua, espresuki arautu ez bada ere.

Zehatzago esanda, “bazterkeria-arriskuko” emaitzari dagozkio ahulezia egoerak, Gizarte-bazterkeriaren gizarte-diagnostikoaren eta balioespenaren eredu teorikoak garatzean. Nolanahi ere, terminologian mugatzen dira desberdintasunak; izan ere, hasieran ikusi bezala, berdintsuak dira aipatzen dituen kasuak.

Dena dela, nahikoa izango da, epaitegiei erantzuteko, ukitutako pertsonak egokitzea ezarritako egoeraren bati, ahulezia-egoeratzat hartzeari dagokionez.

Gure ikuspegitik egokiagoa balitz ere bazterkeria balioestean emaitza, ez litzateke egokia izango ahulezia-egoera soilik egiaztatzea balioespenaren emaitzan oinarrituz; izan ere, arriskuko edo gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsona guztiak ez dagozkie aipatutako egoerei. Hitzarmen honen testuinguruan, litekeena da gehienak izatea, baina beharrezkoa da egiaztatzea.

Irudian, ideia hori grafikoki azaltzen saiatzen gara: puntu arrosak 1/2013 Legearen kasuetan irudikatutako pertsonak lirarteke. Bazterkeria balioesteko tresna aplikatuz gero, ezaugarrien eta gorabeheren arabera, hiru egoeretako batean egongo lirarteke: gizarte-inklusioa, arriskua edo bazterkeria.



Hala ere, epaitegiari egingo zaion erantzunak **esku hartzeko proposamena** ere eduki behar duenez, beharrezkoa da gizarte-diagnostikoa egitea lehenago, bazterkeria balioesteko ezinbesteko oinarria izango baita betiere.

Jarraitu aurretik, gogoratu behar da gizarte-diagnostikoa egiteak **ez dakarrela osorik betetzeko beharra**. Egoera artatzeko, profesionalak beharrezkotzat jotzen duen informazioa jasoko du; hortaz, uneko beharretara doi daiteke araututako diagnostikoaren eredu betetzeko gradua: laburra izan daiteke epaitegiaren errekerimenduari ahalik eta azkarren erantzuteko, eta behar beste luzatu bazterkeria-balioespena behar izanez gero.

³ Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuak haxe ezarri zuen: bazterkeria-arriskuko egoeren baremazioa Udalaren Gizarte Zerbitzuak egin ahal izango duela (19.3 artikulua).

Gogoratu behar dugu Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen 19. artikuluan ezarritako esku hartzeko oinarritzko prozedura...

“Beren jardunean profesionalek ikusten badute **beharrezkoa dela interbentzio bat egitea, jarraipen bat behar duena**, jarduketa-prozedura bat hasiko dute, eta diagnostiko bat egingo. **Diagnostiko** horrek hala aholkatuko balu, **banakako arreta-plan bat** egingo litzateke, neurriak martxan jartzeko laguntzak emanez, plan horretan aurreikusitako prestazioak eta zerbitzuak barne, eta plan horren jarraipena eta ebaluazioa egingo litzateke.”

Noiz egin behar dugu diagnostikoa?



Hitzarmenaren testuinguruan, banakako arreta-planaren edukiari dagokio epaitegiak eskatuko duen esku hartzeko proposamena, bere osotasunari egokitzea beharrezkoa ez izan arren.

Kontuan hartu behar dugu artatutako pertsonen egoera ezagutzeak bai etxebizitzatik botatzearekin lotutako alderdiak eta, hortaz, epaitegiak eskatzen duen esku hartzeko proposamenean sartu beharrekoak, bai beste alderdi batzuk aipa ditzakeela. Horregatik, kasua artatzen duen profesionalaren ardura da hau erabakitzea: zer informazio sartu behar duen txostenean.

Aldez aurretik egoera ezezaguna bada, agerikoa dirudi epaitegitik datorrena izango dela informazio eskuragarri bakarra, zeina udal-errolatik geroago jasoko dugun eta ukitutako pertsonekin zuzeneko harremanaren bidez lortu ahal izango dugun. Horrelakoetan, esku hartzeko proposamena, ziur asko, arreta-planari egokituko zaio.

Edonola ere, aukeratu bada ahulezia-egoera egiaztatzea kontuan hartuta soilik oraingoko egoera, komeniko litzateke egoera hori ulertzea premiazko behin-behineko irtenbide gisa. Beste kasu batzuetan gertatzen den bezala, zenbait eremutan edo alderdi zehatzetan zentratuz has daitezke bai gizarte-diagnostikoak bai arreta-planak, eta pixkanaka handituz joan, kasuaren ezagutzaren arabera edo artatutako pertsonen eskaeren arabera.

Azkenik, Gizarte.eus erabiltzen dituzten profesionalak gogoratu nahi diegu aplikazioak tresnak eskaintzen dituela banakako arreta-planak egiteko zein gizarte-txostenak egiteko, aurretik egindako diagnostiko batean oinarrituta betiere, laburra bada ere. Aplikazioan edo PDF formatuan gorde daitezke, geroago, beste edozein sistematan sartu ahal izateko.



Ereduak edozein egoera-motatarako prest daudenez, egoera horietara egokitzeko hobekuntzaren bat edo ñabarduraren bat behar dela uste badute, eskatu ahalko dute. Betiere, erakunde erabiltzaile gehienentzat egokia bada hobekuntza, arazorik gabe onartuko da.

Era berean, interesgarriak izan daitezke utilitate horiek salbuespenezko kasuak artatzeko Etxebizitzako Sailari zuzentzen zaizkien eskaerentarako; izan ere, bazterkeriaren balioespen-emaitzari buruzko informazioa ere sar dezakete.

1/2013 Legean ezarritako kasuak:

- a) Familia numerosa, de conformidad con la legislación vigente.
- b) Unidad familiar monoparental con hijos a cargo.
- c) Unidad familiar de la que forme parte un menor de edad.
- d) Unidad familiar en la que alguno de sus miembros tenga reconocido un grado de discapacidad igual o superior al 33 por ciento, situación de dependencia o enfermedad que le incapacite acreditadamente de forma permanente para realizar una actividad laboral.
- e) Unidad familiar en la que el deudor hipotecario se encuentre en situación de desempleo.
- f) Unidad familiar con la que convivan, en la misma vivienda, una o más personas que estén unidas con el titular de la hipoteca o su cónyuge por vínculo de parentesco hasta el tercer grado de consanguinidad o afinidad, y que se encuentren en situación personal de discapacidad, dependencia, enfermedad grave que les incapacite acreditadamente de forma temporal o permanente para realizar una actividad laboral.
- g) Unidad familiar en la que exista una víctima de violencia de género.
- h) El deudor mayor de 60 años.

Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen aldaketa.

III. TITULUA

Etxegabetzeko prozedurak aldatzeko neurriak

Hirugarren artikulua.

Hiru. 441. artikuluan, 5. apartatua gehitu da termino hauetan:

«5. 250.1 artikulua 1. zenbakiaren kasuetan, demanduari jakinaraziko zaio gizarte-zerbitzuetara jotzeko aukera, eta, hala badagokio, bere datuak haiei lagatzeko baimena emateko aukera, **egon daitekeen ahulezia-egoera** antzeman ahal izateko. Horren ondorioetarako, epaitegiak prozedura horren berri emango die ofizioz gizarte-zerbitzuei. Gizarte-zerbitzuek berretsiz gero ahulezia sozialeko egoeran dagoela ukitutako etxebizitza, epaitegiari jakinaraziko zaio berehala. Komunikazio hori jakinarazi eta gero, Justiziako Administrazioaren abokatuak bertan behera utziko du prozesua gizarte-zerbitzuek egoki irizitako neurriak hartu arte, hilabete bateko etenaldi baten gehieneko epean, gizarte-zerbitzuen epaitegiei egindako komunikazioa jasotzen denetik hasita, edo hiru hilabetekoa demandatzailea pertsona juridikoa bada. Neurriak hartu eta gero edo epea iraungi ondoren, etenaldia altxatuko da eta prozedurak jarraituko du bere izapideen bidez. Halakoetan, demandatua epatzeko zedulak gizarte-zerbitzuen identifikazio-datuak eduki beharko ditu eta horietara jo dezake herritarrak.»